

# Hitzaurrea

Zuzenbidearen eguneroko zereginetan buru-belarri gabiltzanok, dela eskolak hartu edo eman behar ditugulako, dela auziak erabakitzen ematen dugulako eguna, nahiz txosten burutsuak edo presazko itzulpenak egiten, gutxitan izaten dugu astirik egunerokotasunaren lokarrietatik askatu eta Zuzenbidea delako langintza honen gainean hausnartzera jartzeko.

Zer da Zuzenbidea? Hona hainbatetan norberak bere kolkorako egin izan duen galdera sinplea. Egunerokotasunean murgilduta bizi garen legelari askori falta zaigun denbora hartuta, beste batzuk aritu dira galdera horren inguruan gogoetan. Zuzenbidearen fenomenoak betidanik erakarri izan ditu beste jakintza arlo batzuk: Filosofia, Historia eta Soziologia nagusiki. Galdera soil horrek eraginda, **Eleriak**, alerik ale, eta hainbat urtez, Zuzenbidearen gaineko gogoeten iturburutara eraman gaitzabela eskatu die adituei, Zuzenbidearen fenomenoari buruzko hausnarketa egiten duten oinarrizko testuen bila, alegia. Ekinean, eta hainbat aleren buruan, *Zuzenbidearen Klasikoak* bildumako lehen ale monografikoa plazaratzeko ametsa bete dugu.

Uste dugu Zuzenbideko Klasikoen ezagutza ezinbestekoa dela jurista baten heziketan. Beste hizkuntza normalizatuagoetan jazo den legez, legelari euskaldunak ere, gaurko Zuzenbidea eta horren inguruko eztabaida zein hausnarketak elikatzen dituzten testuak eskura izan behar ditu bere hizkuntza propioan, eztabaida hori euskaraz egin ahal izateko.

Ale berezi honek badu, gainera, beste ardura bat beregain: **Eleria**, Euskal Herriko Legelarien Aldizkariaren 10. urteurrena ospatzea, hain zuzen. Argitalpen honen bitartez ospatu nahi izan dugu efemeride zoriontsu hau eta, bide batez, gure irakurleak saritu, hainbat urtetan gurekin izan ditugulako. Ibilbide luze eta oparo honetan lagun izan ditugun guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, beraz, ale berezi honen bidez.

Euskal legelari guztien zerbitzura egon nahi duen Klasikoen lehen bilduma osatzeko, Zuzenbidearen Teoriaren lehen mailako aditu ditu biren laguntza izan dugu. Bildumari hasiera emateko, José Ignacio LACASTA, Zuzenbidearen Filosofiako Katedraduna izan genuen lagun. Berak jarri zituen egitasmo honen “lehen harriak”, eta baita maisuki iruzkindu ere Zuzenbidearen Eskola Historikoaren testu nagusiak. Lanaren ardura gailena, edonola ere, Joxerramon BENGOTXEAREN bizkar gainean jarri genuen. Aipatu irakasle ezagunak denbora laburrean ibilbide luzea egin du: Eskozian landutako doktore tesi hartatik abiatu eta, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiako irakasle, Luxemburgeko Justizia Auzitegiko legelari, Eusko Jaurlaritzako Lan sailburuorde eta, azkenaldi honetan, Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen zuzendari dugu. Bengoetxea irakaslearen irizpidea benetako luxua izan da Klasikoen bilduma honentzat, non, ikusmira zabalenetik, egungo Zuzenbidearen giltzarri diren oinarrizko testuak ezbairik gabe aukeratu eta azaldu dituen. Bilduma honen ardura duten irakasle biei, beraz, ongi irabazitako eskerrak zor dizkiegu.

Aipaturiko testuak euskaraz jartzearen erronkari galanki egin dio aurre Koro Garmendia itzultzaile eta Zuzenbidean lizentziadunak. Adituek aukeratutako jatorrizko testuak alemanez, ingelesez eta frantsesez daude. Horietako batzuk ez dira inoiz gaztelaniara itzuliak izan; hortaz, testu garrantzitsu horien euskarazko bertsioak balio gehitua duela uste dugu.

Bukatzeko, eta Eleriako Klasikoen eskuetan utzi aurretik, eskerrak eman nahi nizkioke bere agintaldian Bilduma honen sustatzaile eraginkor izan zen Eusko Ikaskuntzako lehendakari ohiari: bihoazkio hemendik nire eskerrik beroenak Gregorio Monreal jaunari.

**Itziar ALKORTA**  
Eleriako idazkaria

